



ELKARBIZITZA-PLANAK EGITEKO ETA JADA EGINDAKOAK GAURKOTZEKO ORIENTABIDEAK.

SARRERA

2010-11 Ikasturte Hasierako Erabakian adierazten da, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako etapei dagokienez, bi urteko epean ikastetxe publiko eta itunpeko guztiek, “*Eskola Txikiak*” izan ezik, Urteko Elkarbizitza Plana (UEP) egina eta Elkarbizitzaren Behatokia (EB) sortua izan beharko dituztela.

Horrela burutuko da Hezkuntza Sailak 2000-01 ikasturtean abiatu eta 2007-10 aldian martxa betean jarri zen prozesua. Izan ere, aldi horretan sare publikoko ikastetxe gehienek beren UEPak egin eta EBak sortu dituzte, Lehentasunezko Ildoen “EB sortu eta UEP egin” P8 Proiektuan parte hartuz.

Prozesu hori burutzeak ez du esan nahi ikastetxeek alor horretan egin beharreko lana bukatutzat jotzen dutenik, baizik eta elkarbizitza beren jardunbide arruntetan txertatzen dela. Ildo horretan, aipatu erabakiak zehazten du UEP egina eta EB sortua dituzten ikastetxeek abian jarri beharko dituztela Planak berekin dakartzan ekintzak.

Orientabide hauen helburuak dira:

- Ikastetxeei agindu zaien eginkizuna zehaztea.
- Ikastetxeei eginkizun hori egiteko argibideak ematea.
- Horretarako izango dituzten laguntzen berri ematea.

ELKARBIZITZA-PLANA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK

Gizartean gertatzen diren aldaketek aldaketa horietara egokitzeko prozesu bat egitera behartzen dute, etengabe, hezkuntza-sistema. Ezagutzak transmititzea baino askoz gehiago baita hezkuntza XXI. mendean. Ikasleak hezteko, belaunaldi berrien integrazio pertsonala errazteko gaitasunak garatu behar ditugu, baita gizartean bizi eta laneratzeko gaitasunak ere, etengabe aldatzen ari den gizarte-testuinguru batean.

Gure jardun-eremuaren baitan, “elkarrekin bizitzen ikastea” da hezkuntza-sistemaren oinarrizko helburuetako bat. Ikastetxeen erronka da norbere eskubideak arduraz baliatzean oinarritutako eredu bat garatzea, besteen eskubideak errespetatuz eta eginbeharrak betez; eredu hori, noski, hezkuntza-komunitateak bere egin beharko du, eta balio demokratikoetan oinarrituta egongo da.

Elkarrekin bizitzen ikastea hezkuntzak duen helburu bat da eta, beraz, ikasi egin behar da, matematika edo plastika ikasten diren moduan. Oinarrizko gaitasun guztiekien zerikusia duenez, ikastetxearen eginkizun guztietan eragiten du, baina batez ere

“gizarterako eta herritartasunerako gaitasunean” eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunean”; kontuan izan behar da, gainera, gaitasun horiek, erreferentziako esparrurik ez dutelarik, lausotzeko arriskua dutela. Gaitasun horien mamia eta “elkarrekin bizitzen ikasteko” ezinbesteko jarduera-alderdiak dira, besteak beste, norberaren herritartasuna arduraz erabiltzea, ikastetxean eta gizarte-bizitzan inplikatzeko ikastea, elkarrizketaren bidea ikastea, giza eskubideak errespetatzea, biktimekiko enpatia izatea, gatazken aurrean jarrera positiboa izatea, gizarte-trebetasunak eta emozioen kontrola lantzea, ideiak proiektu bihurtu eta horiek burutzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzea eta autoestimua lantzea, eta ildo horretako gainerako alderdiak. Horrenbestez, ikuspuntu hori hartzen badugu, Elkarbizitza Planak oso tresna baliagarriak dira ikastetxeek gaitasun horiei begira dituzten hezkuntza-helburuak birpentsatu, diseinatu eta bistarazteko.

LEGE-EREMUA

Lege-erreferentzia ugaritan jaso da ikastetxeek balio demokratikoetan oinarritutako elkarbizitza positiboa bultzatuko duten planak egiteko premia. Hona hemen zenbait adibide:

- ✓ **1/1993 Legea**, otsailaren 19koa, **Euskal Eskola Publikoari buruzkoa**, balio demokratikoetan oinarritutako elkarbizitza sustatzen duena, hezkuntzarako eskubidea indartzen duen elementu gisa.
- ✓ **2/2006 Hezkuntzaren Lege Organikoa (LOE)**, maiatzaren 3koa. Europar Batasunaren irizpideei jarraiki, legeak gaitasun gisa planteatzen ditu hezkuntza-helburuak; horietako bik, hain zuzen ere “gizarterako eta herritartasunerako gaitasunak” eta “ekimena agertzen ikasteko gaitasunak”, zerikusia dute, zenbait alderditan, gatazka konpontzearekin, giza eskubideak errespetatzearekin, erabakiak interes indibidual eta taldekoak aintzat izanik hartzearekin, pertsonak sexu, arraza eta abarreatatik ez baztertzearekin, besteekin harremanak izateko eta elkarlanean aritzeko trebetasunak garatzearekin, norberak planak egin eta horien ardura hartzearekin...
Legeak adierazten du, gainera, ikastetxeek elkarbizitza-planak garatu eta beren Hezkuntza Proiektuetan sartu beharko dituztela.
- ✓ **175/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumak ezartzekoak**, gaitasunen alorra xedatzeaz gain –aurreko puntuan jada aipatua– adierazten du ikastetxeek giza eskubideetan, justizian, elkartzasunean eta inklusioan oinarritutako bake-kultura bat sustatuko duten egitasmoak garatu behar dituztela. Ildo beretik doa, halaber, aurreko dekretuaren aldaketak jasotzen dituen 97/2010 Dekretua.
- ✓ **201/2008 Dekretua**, abenduaren 2koa, **Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharreari buruzkoa**. Dekretuak elkarbizitza-esparru bat arautzen du, ikasleek ikas dezaten, esparru hori baliatuta,



nola gauzatu behar dituzten beren eskubideak eta betebeharrak, eta, horrela, gizarteko kide osoak izateko gaitasunak eskura ditzaten.

- ✓ **85/2009 Dekretua**, apirilaren 21ekoa, **Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Elkarbizitzaren Behatokia** sortzekoa. Behatokia kontsulta eta parte-hartzerako erakunde bat da, EAEko ikastetxeetan elkarbizitzari buruzko ikuspegi orokor bat taxutzeko eta elkarbizitza hobetzeko tresna gisa pentsatua.

ELKARBIZITZA-PLANEN XEDEA ETA EDUKIA

Elkarbizitza Plana agiri bat da, ikastetxeak elkarbizitza positiboa hobetu eta garatzeko dituen asmoak eta hori lortzeko estrategiak jasotzen dituena.

Agiri “estrategikoa” da: lortu nahi den elkarbizitza-eredua taxutzen da eta datozen lauzpabost urterako lehentasunak finkatzen dira. Agiria hezkuntza-komunitate osoak lantzen eta garatzen du, batik bat familiek, irakasleek eta ikasleek. Ikastetxeek, beren premiei eta baliabideei erreparatuz, Elkarbizitza Planaren baitatik zein alor garatuko dituzten erabakiko dute ikasturte bakoitzean, eta horiek **Urteko Planean** sartuko dira.

Elkarbizitza Planak alderdi hauek barne hartu beharko lituzke gutxienez:

1. Elkarbizitzaren diagnostikoa: Ikastetxeko elkarbizitzaren ahulgune eta indarguneak aztertzea, arrazoieta sakonduz eta lortu nahi den elkarbizitza-ereduaren inguruan hausnartuz.
2. Helburuen zehaztapena eta plangintza: Helburuetan lehentasunak ezartzea eta lauzpabost urterako plangintza egitea. Elkarbizitza Planaren jarraipena egitea eta hura ebaluatzea.
3. Elkarbizitzaren baitako jarduerak:
 - ▶ Gatazkak arautu, prebenitu eta kudeatzea. Elkar aditzea eta ordaina ematea. Bitartekaritza eta konpromisoak. Neurri ordaingarri eta zuzentzaileak.
 - ▶ Elkarbizitza antolatzea: Irakasleak eta hezkuntza-komunitatea antolatzea elkarbizitza garatze aldera.
 - ▶ Eskola-curriculumak eta elkarbizitza.

ELKARBIZITZA-PLANAREN ETA IKASTETXEKO BESTE AGIRIEN ARTEKO LOTURA.

Elkarbizitza-planek ikastetxeko agiri hauen zenbait alderdi garatzen dituzte:

- ✓ **Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari** dagokionez:
 - Ikastetxearen elkarbizitza-eredua zehazten du.
 - Hezkuntzaren alorreko asmoak ezartzen ditu, hautemandako premiak eta adostutako elkarbizitza-eredua aintzat hartuz.
 - Hezkuntza Komunitate osoak parte hartzeko eta konpromisoa hartzeko bideak ezartzen ditu.
- ✓ **Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiari** dagokionez:
 - Ikastetxeko elkarbizitzaren arauak eta kudeaketa ezartzen ditu.
 - Elkarbizitzan eragiten duten antolakuntzaren alorreko alderdien inguruan erabakitzen du.

- Elkarbizitzaren arloko organoen funtzioak xedatzen ditu.
- Alor horretan jarduera-protokoloak zehazten ditu.
- ✓ **Ikastetxearen Curriculum Proiektuari** dagokionez:
 - Elkarbizitzarekin zerikusi duten trebetasunak curriculumean nola garatuko diren taxutzen du.
 - Ikastetxeko elkarbizitza-ereduaren araberako aldaketa metodologikoak proposatzen ditu.
 - Arloen programazioek Elkarbizitza Planean adierazitako jarduera-ildoak jasoko dituztela bermatzen du.
- ✓ **Urteko Planari** dagokionez, ikasturte bakoitzean Elkarbizitza Planaren zein helburu garatuko diren zehazten duen neurrian:
 - Helburuak garatzeko ekintzak taxutzen ditu.
 - Arduradunak izendatzen ditu.
 - Epeak ezartzen ditu, zein baliabide behar diren xedatzen du...
 - Lorpen-adierazleak finkatzen ditu.
 - Jarraipen- eta ebaluazio-plan bat ezartzen du.

PLANAK EGITEKO PROZESUA.

Eraginkorrak izan daitezen, elkarbizitza-planek hezkuntza-komunitate osoa engaiatu behar dute. Engaiamendu hori soilik lortuko da plana lantzeko eta ondoren garatzeko prozesuan komunitateko sektore guztiak barne hartzen badira. Beraz, arrakastaren lehen gakoa guztien partaidetza bermatzeko estrategiak garatzea izango da.

Orientabide gisa, eta ikastetxe bakoitzaren inguruabarrak errespetatuz, proposatzen dugu hezkuntza-komunitateko sektore bakoitzak (ikasleak, ikasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta familiak) hausnarketa-prozesu bereizia egitea, debatea aberatsagoa, sakonagoa eta parte-hartzaileagoa izan dadin; ondorengo urrats batean, hausnartutakoaren sintesia egin liteke Elkarbizitzaren Behatokian.

Elkarbizitza Plana lantze aldera, hiru etapako prozesu bat proposatzen dugu:

- ✓ **Sentsibilizazioa.** Etapa honek bi helburu ditu: alde batetik, Plana “zer” den eta “zergatik” egiten den jakinarazi, arrazoitu eta azaltzea eta hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea errazteko egitura sortzea; bestetik, elkarbizitzari buruz dauden ikuspegi ezberdinak partekatzea, esparru komun bat eratzearen. Fase honen azken emaitza hezkuntza-komunitate osoan adostutako elkarbizitzaren *definizio* bat izan liteke, alor horretan hartu nahi den norabidea markatuko duena.
- ✓ **Ikastetxeari buruzko diagnostikoa.** Ikastetxeko elkarbizitzaren *kalitateari* buruzko balorazio ezberdinak –ziurrenik egongo dira– partekatu eta

alderatzean datza. Horretarako, ikastetxeko bizitzaren alderdi guztiak sakon berraztertzea proposatzen dugu, elkarbizitzaren indarguneak (ikastetxe gisa harro sentiarazten gaituztenak) eta ahulguneak (egonezina sortzen digutenak) detektatzeko.

Detektatutako egonezinen ondorioetatik harago joan eta sakoneko arrazoiak atzeman nahi dira, horietatik abiatuta hobetzeko helburuak ezartze aldera.

- ✓ **Plangintza.** Etapa honen helburua lehenetsunak adostu eta lau zepabost urterako plan bat taxutzea da, alor honetan jarraitu beharreko “errepide-mapa” finkatzeko. Urteko Planetan mamituko da plan hori; era berean, Urteko Planen ebaluazioa egingo da eta, horri esker, Elkarbizitza Plana ikastetxearen egoera berrietara egokituz joango da urtez urte.

ELKARBIZITZA-BATZORDEA ETA ELKARBIZITZAREN BEHATOKIA.

Aztertu beharreko beste alderdi bat da Elkarbizitza Batzordearen egoera berria eta batzorde horrek Elkarbizitzaren Behatokiarekin duen harremana. Denborak aurrera egin ahala, Elkarbizitza Batzordearen eginkizuna “diziplina kudeatzera” mugatu zen, eta izaera nagusiki zigortzailea hartu zuen. Elkarbizitzaren Behatokiaren ekarpen nagusia hauxe izan da: parte hartzeko, hausnartzeko eta elkarbizitza positiboko jarduerak bultzatzeko gune bat sortzea, eguneroko lanak kudeatu behar diren zamarik gabe. Gaur egun, ikasleen eskubideen eta betebeharren dekretu berriaren ondorioz, Elkarbizitza Batzordearen eginkizun gehienak ikastetxeetako zuzendaritzen esku geratu dira eta, beraz, jada ez dute lehengo izaera zigortzailea, batzordearen ezaugarri nagusia bilakatu zena.

Egoera horren argitan, beharrezkoa da bi lantaldeak berrantolatzea. Jarrerarik integratzaileena lantalde bakarra eratzea litzateke, izenak izen (batzorde zein behatoki) bien eginkizunak bere egingo lituzkeena.

Ikastetxe bakoitzak erabakiko du organo hori nola eratu, bere ezaugarri, historia, ahalbide eta abarren arabera. Edonola ere, kontuan izango da organo horretan hezkuntza-komunitateko sektore guztiek egon behar dutela.

Elkarbizitzaren Behatokiak bete beharreko eginkizunen artean, honakoak nabarmenduko ditugu:

- ✓ Elkarbizitza Plana abian jarri eta gauzatzea.

- ✓ Parte-hartzea bultzatzea
 - Eragile guztien parte-hartze aktiboa bermatzea, eta bereziki ikasleena.
 - Ikastetxeko kide izatearen sentimendua indartzea.
 - Prozesu eta harreman-gune guztietan aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzea.
 - Kezkak eta iradokizunak biltzea.
- ✓ Elkarbizitza positiboa bultzatzea: jaiak, kanpainak edota gatazkak konpontzeko lantegiak antolatzea, bitartekaritza eta hezkuntza-konpromisoak eragitea, neurri ordaingarriak sustatzea...
- ✓ Araudia:
 - Ikastetxeko elkarbizitza-araudia aztertzea eta hobetzeko prozesuak proposatzea.
 - Jarduera-protokoloak proposatzea.
 - Kideen artean balizko indarkeria eta tratu txarren kasuak antzematea.
- ✓ Ingurunearekiko harremanak. Inguruko erakunde eta entitateekin elkarlanean aritzea.

Bi organoen funtzioak betetze aldera, moduak bilatuko dira erakunde berriak jakintza kudea dezan eta elkarbizitzaren aurkakoak izateaz gain hura larriki kaltetzen dituzten jokabideak zuzentzeko neurriak ezarri eta berrazter ditzan.

IKASTETXEEI ESKAINTZEN ZAIZKIEN LAGUNTZAK.

Ikastetxeentzat ahalegin handia da Elkarbizitza Plana egitea eta Behatokiak martxan jartzea. Azken urteotan, Berritzeguneez esperientzia baliotsua pilatu dute elkarbizitza-planak egiteko prozesuen inguruan.

Zeregin hori erraztearren, Hezkuntza Sailak baliabide hauek eskaintzen ditu:

- ✓ **Trebakuntza Elkarbizitza Planen koordinatzaileentzat.** “Elkarbizitza Plana eta Elkarbizitza behatokia” izenburuaz, bost eguneko ikastaroak eskaintzen dira. Lurralde Historiko bakoitzean ikastaro bana antolatzen da.
- ✓ Parte hartzen duten ikastetxeen kopurua behar bestekoa denean, **zonakako edo zonarteko mintegiak** antolatuko dira, ikastetxeetan garatzen diren dinamikak taxutzen eta bultzatzen laguntzeko.
- ✓ **Aholkularitza ikastetxean bertan.** Parte hartzen duten ikastetxeen kopurua mintegi bat antolatzeko bestekoa ez denean, aholkularitza ikastetxean bertan egiteko aukera ere badago.
- ✓ **Elkarbizitza Planak egiteko materialak.** Duten interesetatik, bi aipatuko ditugu:

- “Elkarbizitza Behatokia sortzeko eta Urteko Elkarbizitza Plana egiteko Gida”.
- “Elkarbizitza-planak eta -behatokiak behar bezala egiteko gakoiei buruzko txostena”.
- Elkarbizitza Planaren eredua, ikastetxeek planak egiteko gida.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2010eko urriaren 25ean



Cándido Hernández

Hezkuntza Berriztatze zuzendaria